

ARTELAN GONBIDATUAK

Grandivaleko horma-sagrarioa

Tipologikoki, horma-sagrario edo horma-tabernakulu bat da. Sagrario gotikoak presbiterioan egoten ziren beti, erdiko horman edo Ebanjelioaren aldean. Honako honetan, Kalbarioko eszena da nagusi, aingeru batzuk lagun eta kardu-hostoak apaingarri dituela. Polikromatuta zeuden, baina pintura-arrasto eta erre-geruzen aztarna txiki batzuk baino ez dira gorde. Honako hau eskultore ez oso trebe baten lana da, baina trakestasun horretan datza hain zuzen haren xarma. Kristoren zurruntasunak ?oinak barnerantz bihurtuta?, garbitasun-oihalaren alboetako jauskerak, Mariaren keinuek ?hatzak gurutzatuta?, San Joanen buru biratuak eta aingeruen kalparrek ?garezurrari itsatsiak baina oinarrian zabalduak? 1475-1500. urte inguruko gotiko berantiarreko estiloan kokatzen dute lan hau.

Elizaren araudiaren arabera, sagrarioek burdin sareko ate bat izan behar zuten, eta ateko sarrailak gutxi-asko landua egon behar zuen. XIII., XIV. eta XV. mendeetan, Europa osoan barrena zabaldu ziren mota horretako tabernakuluak, baina ostia sakratuak kontserbatzeko baldintza txarrak eskaintzen zituztelako eta beste arrazoi eukaristiko batzuegatik, Trentoko kontzilioaren ondoren zureko beste batzuegatik ordezkatu ziren, eta hori dela-eta, ia erabat desagertu ziren.



Egilea: Anonimoa

Data: c. 1475-1500

Teknika: Harri landua

Neurriak: 93 x 82 x 14 cm

Kokapena: Santa Maria Katedrala (Vitoria-Gasteiz), Grandivaleko (Araba) elizatik ekarrita





Altxor bizia

Testuak: Fernando R. Bartolomé García
Argazkiak: Quintas argazkilariak

araba álava
foru aldundia diputación foral

-k finantzaturako proiektua

Zuzendaritza eta koordinazioa:

 katedrala
SANTA MARIA



arte.catedralvitoria.eus

Bisita gidatuak

Informazioa eta erreserbak
Tel. 945 255135
www.catedralvitoria.eus

Bisitarien zentroa



Santa María kantoia 3
01001 Vitoria-Gasteiz